



Alokairu-Politikaren Ebaluazioa 2015

EEBren txostena, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren 2015ko alokairu-politikaren ebaluazioaren emaitzak aurkezten dituen. 2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzaileak zehazten duen Ebaluazio Integraleko Ereduaren esparruan kokatzen da.


[Txostenera Sarbidea](#)

17.504 alokairu-erregimeneko etxebizitza EAEko etxebizitza-parke publikoan

Alokairuko etxebizitza-parkea. 2015ean. EAEko etxebizitza-parke publikoa 77.399 etxebizitza babestuez osaturik dago. Hauetatik, 17.504 etxebizitza alokairu-erregimenekoak dira, hau da, % 22,6a.


Alokairu-errenten bilakaera. EAEko Higiezinaren Eskaintzaren 2015ko Estatistikaren arabera, merkatu librean eskainitako etxebizitzaren batez besteko hileko errenta 872 €-koa zen, hau da, 2014ko aldi berdinarekiko % 3,2ko gehikuntza. Etxebizitza babestuaren batez besteko errenta 345 eurokoa zen, 2014ko prezioa baino % 5,2 gehiago. Errentaren batez besteko prezioa, alokairu babestuaren tipologiaren arabera aldatzen da: hileko 398 euroko errenta B0Eren alokairua eta 153 eurokoa etxebizitza sozialarena.

Alokairu-erregimenean eskaintzen diren etxebizitzaren hileko errenten bilakaera, 2014-2015 (eurotan)



Alokairuko etxebizitza babestuaren eskaria. 2015ean Etxebiden izena emanda zeuden eskaera guztien % 78,7a ziren. Hau da, 2015ean, guztira, 42.193 alokairuko etxebizitzaren eskaera erregistratu ziren, erosketa erregimeneko etxebizitzaren 11.427 eskaeren aurka.

Alokabideren etxebizitza propioa duten udalerrri nagusiak. 2015




Zein da Alokabidek kudeatzen duen alokairu-parkea?

2015eko bukaeran, 3.720 etxebizitzek osatzen zuten Alokabideren alokairuko etxebizitzaren parke propioa; beraz, parke propioa % 5,1a gehitu zen 2014rekin alderatuz. Arabak 2.541 etxebizitza biltzen ditu, hau da, Alokabideren hiru etxebizitzetatik bi.



Parke propioaz gain, Alokabidek 11.767 etxebizitza kudeatu ditu 2015ean, eta horrek % 4,3ko gehikuntza ekarri du 2014arekin alderatuta. Etxebizitza-parke hori ondorengo programei eta erakundeei dagokie:



Alokairuko etxebizitza berrien sustapena

Eusko Jaurlaritzak, 2015ean hasitako 5 etxebizitzetatik bat alokairukoa izatea lortu du. Visesak 185 etxebizitza sustatu ditu guztira ekitaldi honetan, sustapen pribatuko etxebizitza sozialen sustapen baten bitartez.

Bestalde, alokairu-erregimeneko etxebizitza bukatuak 124 izan dira guztira, bi sustapenetan banatuta, 90 etxebizitza Bizkaian egin den sustapen batean eta 34 etxebizitza Gipuzkoan.

Zenbat pertsonek jaso dute Etxebizitzaren Prestazio Osagarria?

Etxebizitzaren Prestazio Osagarriak garrantzi berezia du EAEn. Gaur egun DSBERi lotuta dago, beraz, Lanbidek kudeatzen du Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren eremuan.

Pertsona hartzaileak. 2015ean 38.154 pertsona izan ziren EPOa jaso zutenak. Hauetatik % 59a Bizkaian bizi ziren, % 24a Gipuzkoan eta gainerakoak, % 17a. Araban.

Prestazioaren zenbateko osoa. 2015ean prestazio honetara zuzendu zen aurrekontuaren garrantziaren arabera, 2014arekin alderatuta % 5a gehitu dela ikus daiteke, guztiko zenbatekoa 88,5 milioi eurokoa izanik .

EPOren hartzaile titularren banaketa Lurralde Historikoaren arabera. 2015



Metodologia: EEBk egindako txostena, 2013-2016 Etxebizitzaren Plan Zuzentzailearen jarraipen-informaziotik, eta baita beste informazio-iturritatik abiatuta, besteak beste: Etxebizitza Beharrei eta Eskariei buruzko Inkesta (EBEI), EAEko Higiezinaren Eskaintzari buruzko Estatistika, Etxebide, Etxebizitza babestuen biztanleria esleipendunari 2015ko inkesta, EAEko Foru Ogasunak, eta abar.

Beste iturri batzuk: Alokairu-politikak kudeatzen edo gauzatzen dituzten eragile instituzionalei egindako elkarrizketak.